



ZORIONAK



V.—Érukitsuen zori ona, érukia jadetsiko dabe-ta

ORION onek aúretik azaldu gendunaren antz andia dau. Érukia izan be zuzenaren alaba dala esan gengike; edo gitxitan baño alkarégandik aldenduten eztiran aizta kutun bi. Idazti deunetan be kate gogórez alkar lotuta dabiltz itz biok. Isai igarleak diño: «Garbitu zaiteze; zeuen pekatuen gaiztakeria aldendu egizue nire begi-aú-

etik. Oker-bideak itxi ta onerakoak artu egizuez; zuzen-zale zaiteze; txiro, umezurtz eta alargunakaz érukitsu» (Is. I, 16-17). Eta Matai Deunak: «Zuen zori txaña, idazlari ta parisaitar azalutsok! iñuntzi, ezamilo ta kumiñetako amañenak ordainduta, legean nagusi diran zuzentasun, éruki ta siñestea alde bat izten dozuezanok» (MAT. XXIII, 23).

Goiko Jauna baño erukitsuago nor? Jauna ta erukia ideko berbak dozuz. Begiz ikusten doguzan gauza gelañi guztiok Berak, bere aiez, egiñak dira. Berak atara ebazan ezerezetik eta izatera ekañi. Zerua Berak jantzi eban izañez, itxasoa olatu aroz; zorientegian aingerua ipiñi eban, gizona euean. Eta izaki guztiok ba-diraue, Jaunaren biotz erukioari eun esker diraue bizirik. Jaunaren erukia bere egipean danetaraño elduten da, diño Dabit igarle andiak.

Jaungoikoaren erukia andia dozu, mugarik bakoa. Bere biotz-sua da, ta Jaungoikoaren biotza guganako maitasun ertzik bakoz su-gañetan dago. Ezer ba-gara, Berari zor dautsagu. Gu gai izan ez aien be, esku zabalez bizia emon dausku; goi-eskañez, gogo-bizitzaz jantzi ta antola gaitu. Zure erukia, Jauna, bardiñik eztauna da, diño Augustin doneak. Zeuk egiña nozu; ona be zeuk gura dozulako baño ez naz, ene Jaun eta eruki.

Itxaropena yatzu, irakurle, bizitz-bide onetan argirik onena; gizonak azkenen galtzen dabena be berau. Gaur, bañiz, askotxo ezagutzen doguz, or-emen, argi zuri au erdi galduta dabiltzanak. Zer esan gura dau onek? Jaunaren erukian uste gitxi dabela. Pekataria: urten ilunpe ortatik argira; edan egizu eueñez itxaropen-argia. Inor erukitsu ba-da, Jaungoikoa dozu. Zer da zure obena Jainko-erukiaren aueñez-aueñez? ots-dagi Krisostoma deunak. Aize-boladaz itzaldu ta ezerezten dan amarauna. Bai, zure gaiztakeri guztiak baño zabalago da Jaungoikoaren erukia. Beraz, ez galdu Beraganako uste sendo-zindoa.

Ona, irakurle, guk be erukior izateko, eredutzat nor artu bear dogun. Jesu-Kristo'k diñosku: «Zuen Goiko Aita erukitsu dan lez, zeuek be bata besteagaz erukitsu

izan zaitez. (Luc. VI, 36). Nogaz izan bear dogu erukitsu? Eta besteagaz; geure urko-lagun edo geideagaz. Eta nor dogu geide? Zikoitza, txatxaña ta oskola benetan esku bete bakarik maite dabezan giza-biotza. Edo nor dozu beste zeure irudiko bat; izate bardiña dau, eskar-neuri bardiña be euki dagike, Jaunaren seme ta zeruan zoriontsu be izan daiteke. Oñela izanik, edozein gizon dozu zeure geide (projimu), ta maitasuna zor dautsazu.

Beñizanean dakusu baten bat? Erukitu bite zure biotza. Ezeuki estuan dabilenen bat baldin atera ba-datorkizu oleska, zabal bekizu eskua, zeken antzera borobildu barik. Zeruko Aita eruki-berak izan zaitez, dirausku Kisto'k Bai-dakigu, ba, nor dogun eredu, nori yañaitu bear dautsogun Berealaxe gañeratu eban: Zeuek bestientzat daukazuen neuriz neurtuak izanga sarie. (MAT. VII, 2). Bai; Jauna guztiokaz erukioña ba-da be, erukitsu danagaz eruki geyago erabiliko dau. Oñela, bestiekaz erukitsu izaten leyatu gaitez, eta Jaunaren erukia ugariago daukakegu.

Erukior gaitzan, eta sarie be gain dogu. ¿Zer? Jaunaren erukia. Nun? Lur oretan ugari, ta bestian oraindik askozaz be ugariago. Geu enparauakaz erukior izan ezker, Jauna, eruki utsa da-ta, gugañ erukior izango da; obenak parkatu egingo dauskuz.

JAGOBA, K, O.

“KARMEN'GO ARGIA,, au 1936'an lenengoa da, ta arpide-saria aurretiz ordaindu bear da. Ta zuk ordaindu dozu? Zure eriko ordezkariaren bidez egin zeinke.